



ITSASONDOKO
UDALA



HONDAKINEN KUDEAKETA ITSASONDON

COVID-19 BIRUSAREN ONDORIOZ, ITSASONDOKO HONDAKINEN ATEZ ATEKO BILKETAREN EGOKITZAPENA

DATA: 2020-03-23

Itsasondotarrei adierazten zaie koronabirusik ez duten etxeetan ATEZ ATEKO HIRI HONDAKINEN BILKETA MANTENDU egingo dela, gaikako bilketa era arruntean eginez.

Hori bai, gogoratu, hondakinak behar bezala sailkatuta **KUBOTAN SARTUTA** atera behar direla soilik. **DEBEKATUA dago poltsak zintzilikatzea edota lurrean uztea.**

Etxean norbait COVID19 birusarengatik kutsatuta edota berrogeialdian badago, UDALAREKIN jarri harremanetan 943 88 11 70 telefonoan udaleko harrera ordutegian (08:30etik 13:30era) edo, beharra arratsaldean sortuz gero, 644 98 44 67 telefonoan, 20:00ak arte. Zure etxeko hondakinak zer-nola kudeatu behar diren argibideak emango dizkizugu.

Dena den, denok jakiteko, prozedura hau izango da:

☑ **Noiz.** Gaixotutako edota berrogeialdian dauden etxeetako hondakinak hurrengo egunetan jasoko dira:

- ASTELEHENETAN
- OSTEGUNETAN

☑ **Zer.** Etxeetako hondakinak osasun agintariak ezarritako prozeduraren baitan jasoko dira.

- 3 poltsa beharrezkoak izango dira: bata bestearen barruan.
- Etxean bakartuta/berrogeialdian pertsonak dituzten etxebizitzetan hondakinak **ez dira bereiztuko** eta **denak errefusarentzako edukiontzira** bideratuko dira.



**ITSASONDOKO
UDALA**



📌 Nola.

- Gaixotuek edota berrogeialdian daudenek udal arretako telefonora deitzean, osasun agintaritzatik jasotako irizpideak eta bilketa irizpideak azalduko zaizkie, etxeko hondakinak behar bezala kudeatu ditzaten.
- Udal langileak pasako dira astelehen eta ostegunetan hondakinen bila, beharrezko segurtasun neurriekin. Etxe bakoitzera goizean zehar (08:30etik aurrera) deituko dute, bere hondakinak biltzera doazenean.
- Langileek ate aurrean ontzi bat utziko diote, eta hark bertan sartu beharko du hirugarren hondakin poltsa, ontzia ukitu gabe eta etxean sartuko da. Langilearekin ez du inolako hartu-emanik izango.
- Langileak ontziaren tapa itxi, eta beharrezko segurtasun neurriak hartuz, errefusuz zaborrontzira eramango dituzte ontziak. Hemendik hartuko ditu Sasietako kamioiak.

Gainontzean, hondakinen bestelako bilketei dagokionez, hurrengo zerbitzuak eten egiten dira herritarrentzat, bestelako abisurik jaso arte:

- Ordizia, Beasain eta Urretxuko garbiguneak.
- Hilean bitan egiten den traste handi eta altzarien bilketa.

PIXOIHALAK dituztenek, kuboarekin batera atera ordez, behin-behinean espresuki jarri diren **PIXOIHALENTZAKO EDUKIONTZI BEREZIAN** sartuko dituzte:

- Herriko plazan.
- Beiti kalean.
- Beheko kalen, elkartearen parean.
- Aparkalekuko birziklagunean (atea irekita dago, eta txartelik gabe sar daiteke).

Hauxe izango da etengabe aldatzen ari den errealitatera moldatzeko Itsasondoko hondakinen bilketa berezi hau egiteko modua. Aldaketak izaten diren bezain pronto jakinarazi zaizue. Denok bezala, udaletik ere larrialdi egoera hau denbora gutxirako izatea espero dugu.

Itsasondon, 2020ko martxoaren 23an